

ERRABAL
J | A | Z | Z

Alberto Arteta Group
The Legacy



94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabaljazz.com

Errabal (ER-084)
2016
CD

Egia esan, gozamina da egunez egun ikastea zeinen handia den iberiar lurralde honetan bizi diren *jazzman* gazte bikainen kopurua. Hain zuzen ere musikaz (eta zer esanik ez jazza egiteaz) bizi ahal izatea egunetik egunera zailagoa den honetan, hemen su handi bat egiteko nahikoa egur dagoela argi eta garbi uzten tematzen den musikari belaunaldi oso bat dago, hogeita hamar urteren bueltan dabiltza musikari horiek. Zentzu horretan, Alberto Arteta da nire azkenurreko deskubrimendua: saxofoi jotzaile aparta da, teknika handikoa eta soinu kalitate bikaina eskaintzen duena, musikagile gisa ideia pizgarriak proposatzen dituena. *The Legacy* entzunda argi eta garbi dago ez dela txantxa berea eta bidelagun dituenena: hemen dira, eta standart zaharrak esango lukeen bezala, geratzeko iritsi dira.

Disko honetan soilik standard bakar bat dagoen arren, *My Romance* gai klasikoaren hirukoen irakurketa gozoa, talentu berezia eta abesti bakoitzaren dinamiken eta mugimenduen gaineko kontrol miresgarria agerian uzten dituzten gai propioak dira gainerakoak. Bizitzatik eta berezko lurrinetik arnas egiten duten gaiak dira.

Baina historia pixka bat egingo dugu Artetaren ibilbide profesionala oraindik ezagutzen ez dutenek haren berri izan dezaten: bere promozioko lehendabizikoa izan zen Pablo Sarasate Goi-mailako Musika Kontserbatorioan, eta Amsterdamen osatu zuen bere prestakuntza; han ere nabarmendu egin zen eta Dick Oatts, Dave Douglas eta Don Menza bezalako maisuen eskutik eskolak jasotzeko aukera izan zuen. Bidean jartzea baizik ez zitzaion falta, eta bide horretan lehen urratsak egiten eman ditu azken urteak. 2014an kaleratu zuten BAT, Alberto Arteta Group izenarekin argitaratutako lehen lana; orduz geroztik, ongi egina dagoena estimatzeko eta programatzeko prest dauden espazio guztietan, horrelakoak ere egon baitaude, ibilia da talde hau, aitzindari gisa ibili ere. Inguru honetan jazz diskoak saltzea Saharan euritakoak saltzea bezain nekeza den arren, harrera ona egin zioten diskoari, eta beraz, zentzuzkoa denez, haren ondorengoa da *The Legacy* hau. Bitartean, hainbat talderekin jardun izan du Albertok askotariko emanaldietan eta grabazioetan: Anaut, Jorge Garrido, Mauro Urriza, Kike Arza, Jean Marie Ecay eta Broken Brothers Brass Band paregabea. Gainera, tximistaren abiaduran igaro da Nafarroako Goi-mailako Musika Kontserbatorioko ikasle izatetik bertan maisu izatera eta saxo eskolak ematera.

The Legacy diskora itzulita, Arteta musikagilearen ezaugarri bereziak nabarmendu ditugu: sarritan, ostinato gisa pixkanaka irekitzen diren egitura erritmikoak baliatzen dituzten doinuetan oinarriturik, haren konposizioek paisaia harritsuak eskaintzen digute, haran bati edo kostaldeari bide ematen dion paisaia harkaitzua. Horixe bera hauteman dezakegu lehenengo gaian, *Zuri Beltz*, eta gainera bertan aurkituko dugu, lehenengo aldiz, Luis Giménez gitarra zoragarria. Disko honetan gustukoaren dudak *PC Jauna* gaian, berriz, modu miresgarrian gurutzatzen dituzte Albertok eta Luisek doinuaren ildoak. Era berean, oso erakargarria eta interesgarria da albumari izena ematen dion gaiaren erritmoaren egitura, eta horretan ere, biek partekatzen dituzte bakarlariei dagozkien pasarteak.

Azken aurreko aitortpena gaia hots bakarreko doinu zoragarri baten inguruan eraikia da. Gai horretan Kike Arzaren kontrabaxu sendoak eta adierazgarriak eramaten du beretzat pastelaren zatirik goxoena. *Dezagun guzti dezagun beti* gaiak ere egituraren dinamikaren eta mugimenduaren ezaugarri berdinak uzten ditu agerian, eta beraz, Artetaren eta Satxa Soriazu pianista handiaren bakarkako bi pasarte zoragarri oparitzen dizkigu. 1512 gaiak, Juanma Urrizak ezin hobe garatutako egitura erritmikoan, martxa bat gogorarazten duen egitura, du abiapuntua, uneoro ageri zaigu erne, eta bistan da baliabide asko dauzkala taldeari bateria jotzaile on batek sortzen badakien euskarri sendoa emateko.

Gisatu goxo hau ontzeko azken ongailu gisa, soilik segundo batzuk irauten duten interludio labur batzuk – batez ere duoak dira– zipriztintzen dute *The Legacy: Bi Heren* (tenorea eta bateria), *Hiru Heren* (gitarra eta baxua) edo *Heren Bat*, Soriazuren bakarkako pasarteak.

Laburbilduta, ugari dira disko honekin gozatzeko arrazoiak: zintzoa da, pertsonala, eta esateko interesgarri asko duten musikari baten eta talde baten haziera esponenzialaren lekukotasuna da. Hortaz, bidean haien urratsak eta zureak gurutzatzen badira, ez ezazu ez ikusiarena egin: musikari handia da Alberto Arteta, edonork aintzat hartzeko modukoa, alegia.

Mario Benso